



ERRI Pape Ra

2021eko abendua • 54. zenbakia

**ELDUAIN, BIDANIA-GOITZ, IBARRA eta IDIAZABAL
GEHITUTA, 275.000 BIZTANLEKO LURGUNE
EUSKALDUNA OSATZEN DUTE UEMAKO HERRIEK 2-3 ORR.**



Ibarra da abenduaren 18az geroztik UEMAKo kide diren lau herri berrien artean handiena, 4.248 biztanlerekin. Argazkia: Irati Saizar - Tolosaldeko Ataria.

**HITZARMENA HIRU FINANTZA ERAKUNDEREKIN
UEMAK eta 44 udalek sinatu dute, lau urterako
UDALERRI EUSKALDUNETAKO BULEGOETAN EUSKARA
LEHENESTEKO KONPROMISOA HARTU DUTE LABORAL
KUTXAK, KUTXABANKEK eta Bankoa Abancak. 4. ORR.**

**HIRIGINTZA eta HIZKUNTZA AZTERGAI
BI IKERLAN SARITU DITU UEMAK Iñaki ARREGI BEKAREKIN
HERRI EUSKALDUNAK DISEINATZEKO HIRIGINTZA
GIDAK eta GAZTEEN HIZKUNTZA AUTOESTIMUA
IKERTZEKO LANAK JASO DUTE SARIA. 5. ORR.**

Lau udal berri gehituta, 275.000 biztanleko lurgune euskalduna biltzera heldu da UEMA

Udalerrri euskaldunek euskararen biziberritzeari eta oro har Euskal Herriaren nortasunari egiten dioten ekarpenaren jakitun, euskararen lurgunea handitzea eta horretarako UEMA bera sendotzea da Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen helburuetako bat. Azken hilabeteotan, hainbat udalek egin dute bat UEMArekin, eta guztien artean osatzen duten lurgune euskalduna inoiz baino handiagoa da. Zehazki, 275.000 biztanleko lurgunea osatzen dute gaur egun UEMako kide diren 94 udalerriek. 17 udalekin ekin zion bideari mankomunitateak, eta hurbil du 100 udalen muga.



Bidania-Goiatz, Elduain, Ibarra eta Idiazabal gehituta, 7.325 biztanle gehiago dituzte orain UEMako kide diren 94 herriek. Argazkia: Maier Ugartemendia - Tolosaldeko Ataria.

Azken urteotan, tantaka, etenik gabe gora ari da egiten UEMako kide diren herrien kopurua. Urtean zehar ohiko bi batzar nagusi egin ohi ditu UEMAK, eta batzar-kideek azkenaldian beti dituzte herri berrien eskaerak aztergaien artean.

Horrela izan da abenduaren 18an Idiazabalen egin duten batzar nagusian ere. Zehazki, Bidania-Goiatz, Ibarra, Elduain eta Idiazabalgo udalek UEMako kide izateko egindako eskaerak onartu dituzte, eta lau udal berriak gehituta 94 udalerrik

osatzen dute gaur egun UEMA. UEMaren esperientziak eta ekarpenak udalen euskara zerbi-tzuak sendotuko dituelakoan daude udal berriak, batez ere herritarren kontzientziazioan eta ahalduz eraginez, udal barruko erabilera planak eta gainerakoak bideratzeaz gain.

Tolosaldean, 28 herrietatik 21 dira UEMako kide

UEMarekin bat egin duten lau udal berrietatik hiru Tolosaldekoak dira. Ez da

kasualitatea. UEMAK, Tolosaldeko Euskara Mahaiak eta Galtzaundik azken urteotan udalekin egindako lanaren emaitza baizik. Hurrengo hilabeteotan, gainera, beste zenbait udalek ere urratsa egitea espero dute. Izan ere, Euskal Herriko eskualde euskaldunenetakoa da Tolosaldea, hainbat arnagune daude eskualdean, eta hori UEMAn islatzea guztientzat mesede delakoan ari dira erabakia hartzen udalak. Horrela, Tolosaldeko 28 herrietatik 21 dira dagoeneko UEMako kide.

UEMako kide diren 94 udalak

Lau herri berriak gehituta, honakoa da UEMako kide diren udalen zerrenda. Herrian euskaldunen indizea %70etik gorakoa izatea eta udalak UEMako kide izateko erabakia hartzea dira mankomunitateko kide izateko baldintza nagusiak.

1. Aduna	10. Amoroto	20. Areso	39. Dima	58. Ikaztegieta	76. Muxika
2. Aizarnazabal	11. Anoeta	21. Artea	40. Ea	59. Irura	77. Oiartzun
3. Ajangiz	12. Antzuola	22. Ataun	41. Elduain	60. Itsasondo	78. Oñati
4. Alegia	13. Araitz	23. Atxondo	42. Elgeta	61. Izurtza	79. Ondarroa
5. Alkiza	14. Arama	24. Aulesti	43. Errezil	62. Larrabetzu	80. Orendain
6. Altzaga	15. Aramaio	25. Azpeitia	44. Etxalar	63. Larraun	81. Orexa
7. Altzo	16. Arantza	26. Bakio	45. Etxarri	64. Leaburu-	82. Orio
8. Amasa-	17. Arantzazu	27. Baliarrain	Aranatz	-Txarama	83. Orozko
Villabona	18. Arbizu	28. Basaburua	46. Ezkio-Itsaso	65. Legorreta	84. Otxandio
9. Amezketa	19. Areatza	29. Baztan	47. Gabiria	66. Leitza	85. Segura
		30. Beizama	48. Gaintza	67. Lekeitio	86. Tolosa
		31. Bera	49. Gatika	68. Lesaka	87. Usurbil
		32. Berastegi	50. Gaztelu	69. Lizartza	88. Zaldibia
		33. Bergara	51. Getaria	70. Mallabia	89. Zarautz
		34. Bermeo	52. Gizaburuaga	71. Mañaria	90. Zerain
		35. Berriatua	53. Goizueta	72. Markina-	91. Zestoa
		36. Bidania-	54. Ibarra	-Xemein	92. Ziortza-
		Goiatz	55. Idiazabal	73. Mendaro	-Bolibar
		37. Busturia	56. Igantzi	74. Munitibar	93. Zizurkil
		38. Deba	57. Igorre	75. Mutriku	94. Zumaia



HERRIA: BIDANIA-GOIAZ
HERRIALDEA: GIPUZKOA (Tolosaldea)
BIZTANLEAK: 525
EUSKALDUNAK: %87,65.

Azaroaren 24ko udal osoko bilkuran erabaki zuen Bidania-Goiatzko Udalak UEMAn sartzeko eskaera egitea.

Agurtzane Zelaia Arandia Bidania-Goiatzko alkatearen hitzetan,

“naturaltasunez” hartu du Udalak UEMARA sartzeko erabakia. “Momentu hau ere gako delako uste dugu, erabilera eta ezagutza beherantz doaz, eta gora egiteko baliabideak beharrezkoak ditugu”.

Gainera, “udalerrri euskaldun askotan gertatzen ari den galera nabari da Bidania-Goiatzeko ere: herritar berriek eta herritarren ohitura ezberdinek aldaketa handiak eragin dituzte herrian. Horrek gure kezka handiagotu egin du. Izan ere, hauskorak dira gure herri txikiak, eta hizkuntza politika propioak landu nahi ditugu. Euskara da gure hizkuntza nagusia, eta etorkizunera begira hori sendotu nahi dugu, naturaltasunez ekinez, inertziaz kontzientziara pasatuta. Eta noski, hori guztia UEMAREKIN eta bertako kide diren beste herriekin batera egin nahi dugu”.



HERRIA: IBARRA
HERRIALDEA: GIPUZKOA (Tolosaldea)
BIZTANLEAK: 4.248
EUSKALDUNAK: %74,86

Azaroaren 11n egindako udal osoko bilkuran hartu zuen Ibarrak UEMAKO kide izateko erabakia, EH Bilduren sei zinegotzien eta EAJren lau zinegotzien aldeko botoekin. Aurka agertu zen, berriz, PSE-EEko zinegotzi bakarra.

Euskaldunen indizea %74,86 da Ibarrian. Oro har euskaraz bizi dira herrian, baina udalerrri euskaldun gehienetan bezala, hauskortasunarekiko kezka ere badu Ibarriko Udalak, edozein aldaketarekin egoera iraultzeko arriskua benetakoa delako. Euskararen kale-erabilerrari dagokionez, esaterako, 2019ko datuen arabera %54,60ra egiten du behera ehunekoak, haurren (%79) eta gazteen (%66,92) artean datuak askoz hobekak diren arren.

IBARRAKO EUSKARA SAILAREN EUSKARRI

Nagore Zubillaga alkateordearen hitzetan, udala UEMAKO kide izatea Ibarriko herriko euskara sailaren euskarri izango da, eta UEMAK indarra ere emango dio sailari, elkarlanean hainbat ildo berri landuz. Era berean, “udalak eredu izan behar du euskararen normalizazioan. Bereziki euskaratik urrunago dauden herritar horien erreferente ere izan nahi dugu, guztien hizkuntza eskubideak errespetatuz”.



HERRIA: ELDUAIN
HERRIALDEA: GIPUZKOA (Tolosaldea)
BIZTANLEAK: 245
EUSKALDUNAK: %94

Maiatzaren 31n erabaki zuen Elduaingo Udalak UEMAKO kide izatea, udal osoko bilkuran, aho batez, udalbatza osatzen duten EH Bilduko 5 zinegotzien aldeko botoekin.

Oihana Amundarain Elduaingo alkatearen hitzetan, “Tolosaldeko geroz eta udal gehiago dira UEMAKO kide, eta Elduaingo ere udalerrri euskalduna izanda, euskararen lurgunea zabaltzeko eta sendotzeko aukera ederra iruditzen zaigu. Izan ere, euskararen erabilera normalizatzeko eta euskara biziberritzeko laguntza handia da beste udalerrri euskaldunekin elkartzeara. UEMAREN aterkipean, udaletik soilik bideratu ezin dugun hizkuntza politika garatzeko aukera izango dugu orain”.

Oraindik UEMAKO kide ez diren Tolosaldeko udalei ere dei egin nahi izan die: “Garrantzitsua da Tolosaldeko udal guztiek pauso hori ematea, Euskal Herriko arnagune izaten jarraitzeko eta eskualde gehiagotara zabaltzeko. Euskarak merezi du eta behar du”.



HERRIA: IDIAZABAL
HERRIALDEA: GIPUZKOA (Goierrri)
BIZTANLEAK: 2.305
EUSKALDUNAK: %87,9

Idiazabalgo Udalak abenduaren 2an egindako udal osoko bilkuran hartu zuen UEMARA sartzeko erabakia. UEMAK Idiazabalen bertan egin zuen urte amaierako batzar nagusia, pasa den abenduaren 18an, eta batzarkideek

orduan erabaki zuten herri berrien eskaerak onartzea. Beraz, herrian bertan egindako batzarrean jaso zuten ongietorria idiazabaldarrek.

Gipuzkoa hegoaldeko herria da Idiazabal. Goierrri bailaran dago, eta euskaldunen indizea %87,9 biztanleen artean. UEMARA sartzeko erabakiarekin, udalean zein udalerrrian hizkuntza normalizazioan eragiteko asmoa du Udalak, urrats berriak eginez herritarrekin zein udal langileekin.

HITZARMENA

UDALERRI EUSKALDUNETAKO BULEGOETAN EUSKARA LEHENESTEKO KONPROMISOA HARTU DUTE HIRU FINANTZA ERAKUNDEK UEMAREKIN ETA 44 UDALEKIN

Finantza alorrean euskararen erabilera areagotzeko lau urterako hitzarmena sinatu eta aurkeztu dute UEMAK, Laboral Kutxak, Kutxabankek eta Bankoa ABANCAk, udalerrri euskaldunetako 44 alkaterekin batera. Hiru finantza erakundeek hizkuntza irizpideak adostu dituzte UEMAREKIN, eta udalerrri euskaldunetan dituzten bulegoetan euskara lehenetsiko dute, bai hizkuntza paisaian eta baita herritarrekiko harremanetan ere, ahoz zein idatziz.



UEMAko kide diren herrietako ordezkariak, Laboral Kutxa, Kutxabank eta Bankoa Abanca finantza erakundeetako ordezkariekin, urriaren 20an Bergaran egindako agerraldian.

2016an lehen aldiz sinatu zuten hitzarmena Kutxabank-ek eta Laboral Kutxak UEMAREKIN, eta 30 udalek egin zuten bat hitzarmenarekin. Orain, bost urte geroago, hitzarmena eguneratu eta Bankoa ABANCA ere gehitu da hitzarmenera, hiru finantza erakundeek bulegoak dituzten 44 herrietako udalekin batera.

Udal horietako alkateak eta ordezkariak Bergaran elkartu ziren urriaren 20an, eta hitzarmena aurkezteko ekitaldia egin zuten, hiru finantza erakundeetako ordezkariekin batera. Guztiei eskerrak eman zizkien UEMAKo lehendakari Iraitz Lazkanok, hitzarmenaren garrantzia ulertzeagatik: “UEMAREKIN eta 44 udalerrri euskaldunekin hitzarmena sinatu duten hiru finantza erakunde hauek argi dute kalitatearen funtsezko osagaia dela bezeroak harremanetarako hizkuntza hautatu ahal izatea. Hori bermatzeko neurriak hartu eta berretsi dituzte hitzarmen honetan, eta bulegoak udalerrri euskaldunetan dituztela ulertuta eta udalerrri euskaldunek euskarari egiten dioten ekarpena aintzat hartuta, bulego horietan euskara lehenesteko konpromisoa ere hartu dute. Beraz, jarrera eredugarria dute.

Finantza erakundeek, udalek eta UEMAK hitzarmenaren atarian bildutakoa ere gogoratu zuen Lazkanok. “Bi hizkuntza ofizialen artean desorekan dagoen hizkuntza ahula euskara da eta, beraz, hau lehenesteko neurriak hartzea ezinbestekoa da, euskara zabaltzeko eta sendotzeko asmoz, beti ere bezeroek euskaraz ahoz eta idatzi jarduteko duten eskubidea modu argi eta garbian aitortuz”.

HITZARMENAREN MAMIA, ZAZPI PUNTUTAN BILDUTA

Hori bermatu ahal izateko, UEMAK, Laboral Kutxak, Kutxabank, Bankoak eta 44 udalerrri alkateek hainbat kontu hitzartu eta zazpi puntutan bildu dituzte. Honakoetan, besteak beste:

Udalen eta finantza entitateen arteko harremanak euskaraz izango dira, ahoz zein idatziz. Finantza entitateak, hitzarmena sinatu duten udalerrietan dauzkan bulegoetan, euskararen presentzia bermatuko du herritarrekiko harremanetan. Horretarako bulegoetako langileak funtsezkoak direnez, langile guztiak gai izango dira euskaraz jarduteko, eta horretarako trebakuntza jasoko dute.

HITZARMENA



Bergarako alkate Gorka Artolak egin zien harrera ekitaldian izan zirenei.

HELBURUA: FINANTZA ALORREAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEA.

SINATZAILEAK: UEMA, LABORAL KUTXA, KUTXABANK ETA BANKOIA ABANCA, FINANTZA ERAKUNDE HORIEK BULEGOAK DITUZTEN UEMAKO 44 HERRIETAKO UDALEKIN BATERA.

INFORMAZIO OSAGARRIA ETA HITZARMENA OSORIK: LABUR.EUS/UEMAFINANTZAK



IÑAKI ARREGI BEKA

EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA GIDA, UDAL GUZTIEN ESKURA

IÑAKI ARREGI IKERKETA BEKAREN BIGARREN DEIALDIA GAILENDU DIREN LANAK EZAGUTARAZI DITU EPAIMAHAIAK. BATETIK, SAIOA ZUAZUBISKAR ARKITEKTOAREN PROIEKTUA, ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA IKUSPEGITIK HERRI EUSKALDUNAK DISEINATZEKO. BESTETIK, EUSKAL GAZTEEN HIZKUNTZA AUTOESTIMUARI DAGOKIONA: ANALISIA ETA EGOERA IRALTZEKO PROPOSAMENA.

UEMAK, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kontseiluak osatutako epaimahaiak azaroaren 17an ezagutarazi zituen Iñaki Arregi ikerketa bekaren deialdian saritutako lanak. Udalerrri euskaldunen garapena aztertzeke, ikerketa sustatzeko eta euskal soziolinguistikaren inguruko ezagutza areagotzeko asmoarekin sortu zuen beka UEMAK 2019an, eta bigarren deialdia du aurten.

Garapen sozioekonomikoarekin, hizkuntzaritzaarekin edota soziolinguistikaarekin lotutako zortzi lan aurkeztu dira deialdi honetan, eta lan gehien interesa eta kalitatea nabarmendu ondoren, epaimahaiakideek bi ikerketa saritzea erabaki dute. Bakoitzak 6.000 euroko laguntza jasoko du ikerketa amaitzeko eta aurkezteko, urtebeteko epean.

Udalerrri euskaldunak zaintzeko eta babesteko UEMAK urte askoan egindako ildoan sakonduz, eta lurralde antolamenduak eta hirigintzak hizkuntzarengan duen eragina ezagututa, EAeko Udal Legeak legez arautu zuen proiektu zehatzek hizkuntzan duten eragina neurtzeko be-



Hirigintzak hizkuntzaren erabileran duen eragina aztertu ondoren, garapen demolinguistiko orekatua bilatzeko gida osatuko du Saioa Zuazubiskar arkitektoak. Argazkian, Salberdin eremuko hirigintza lanak, Zarautzen.

harra. Horri heldu dio Saioa Zuazubiskar arkitektoak, epaimahaiak saritu duen lehen lanean: *Herri euskaldunak diseinatzaren. Eragin linguistikoaren manuala arkiteturaren eta hirigintzan.*

ERAGIN LINGUISTIKOAREN GIDA

Zehazki, hirigintzaz arduratzen diren teknikariek eta udal ordezkariak baliagarria

izango zaien gida sortzeko jaso du beka. “Batetik, proiektuak abiatu aurretik go-goeta egitera behartzeko, proposatuko ditzuten hiri eredu eta diseinu horiek euskararengan izan dezaketen eragina aztertzeke. Bestetik, proiektuek euskararengan eragin positiboa izan dezaten, alde aurretik definitu daitezkeen bete beharko ditzuten baldintzak”.

HIZKUNTZA AUTOESTIMUA IKERTZEKO ETA LANTZEKO BALIABIDEAK, HEZKUNTZAN ETA AISIALDIA

June Furundarena, Leire Sanchez eta Jon Izetak osatutako lantaldearen proposamena da epaimahaiak saritu duen bigarren ikerketa: *Euskal gazte hiztunen hizkuntza autoestimua: faktoreen analisisa eta egoera iraultzeko proposamena.*

Azken urteotako ikerketen arabera, euskararen erabilera estuki lotuta dago hizkuntza-autoestimuekin. Halaber, horrek lotura zuzena du hizkuntza-gaitasunarekin, hizkuntza aldaerarekin, hizkuntzarekiko jarrerarekin

eta hizkuntza identitatearekin. Bekari esker, horiek kualitatiboki eta kuantitatiboki ikertuko dituzte egileek, eta ondoren “gazte euskaldunen hizkuntza autoestimua indartzeko, euskararen erabilera hauspotzeko, eta sentsibilizazioa eta ahalduntzea bultzatzeko” baliabideak sortuko dituzte, unitate didaktikoak osatuz. Horiek sortuta, hezkuntzan zein aisialdian erabili ahal izango ditu UEMAK, eskoletako hezkuntza proiektuan zein 2023ko udalekuean.



Nork bere hizkuntzarekiko edo hizkerarekiko duen pertzepzioa eta errespetua da hizkuntza-autoestimua.

Hezkuntza komunitatean eragiten

UEMAREN HEDATU HEZKUNTZA PROIEKTUAN KONTUAN HARTZEN DA HAUR HEZKUNTZATIK BATXILERGORA BITARTEKO IBILBIDE GUZTIA. HORIETAN DENETAN ERAGITEA DA UEMAREN HELBURUA; ETA HORRETAGAKO EZINBESTEKOAK DA HEZKUNTZA KOMUNITATEA OSATZEN DUTEN HIRU ZUTABE NAGUSIETAN ERAGITEA: IKASLEAK, IRAKASLEAK ETA GURASOAK. GUZTIAK NORABIDE BEREAN JARTZEKO PROIEKTU SENDOA OSATU DU UEMAK, HEZKUNTZA OHITURETAN ERAGITEKO EZINBESTEKOAK DELAKOAN.

UEMAREN ildo nagusietako bat herritarren sentsibilizazioa eta ahalduntzea da, eta horren baitan, haur eta gazteengana heltzeko eta ikasle guztiak euskararen eta udalerrri euskaldunen garrantziaz kontzientziatzeko, HEDATU hezkuntza proiektua sortu zuen mankomunitateak 2016an. Harrezkero, hezkuntza arautuko hiru zutabe nagusietarako baliabideak sortu ditu: ikasleentzat, irakasleentzat eta gurasoentzat.

Ikasleentzat, zehazki, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arteko mailerako unitate didaktikoak sortu eta eguneratu ditu UEMAK urte hauetan, eta guztiak uema.eus/hezkuntza webgunean daude bilduta, ikastetxeen esku, unitate bakoitzaren lagungarri diren bideoekin eta material osagarriekin.

Irakasleentzat, berriz, gaian trebatzeko formazio saioak prestatu ditu ikasturte honetan UEMAK, soziolinguistika edukia eta ikasleek euskarari eusteko estrategiak landu ditzaten.



UEMAko teknikariek azaltzen diete ikasleei udalerrri euskaldunen egoera eta euskararen arnaguneen garrantzia.

Gurasoentzako ohiko saioak ere moldatu eta eguneratu ditu, hausnarketarako gaiak eta parte hartzen duten elkarteetarako hizkuntza irizpideak gehituta.

Horiek guztiak, gainera, ikerketarekin osatzen ari da azkenaldian: eskolan hizkuntza aniztasuna kudeatzeko ekime-

nekin, edota haurren erabilera, etxeko hizkuntza eta ikus-entzunezkoen kontsumoa aztertzeko ikerketekin.

Horiez gain, hezkuntza ez-arautuan ere eragin nahian, aisialdiko begiraleentzako formazio saioak eta gazteentzako udalekuak ere antolatzen ditu UEMAK.

UNITATE DIDAKTIKO BERRIA HAUR HEZKUNTZARAKO, 'MOKOTXIKI' ALBUM ILUSTRATUAN OINARRITUTA

Pamiela argitaletxearekin elkarlanean, Leire Bilbao idazlearen eta Maite Mutuberrria ilustratzailearen *Mokotxiki* liburua berrargitaratu du UEMAK udazken honetan, Haur Hezkuntzako 4. eta 5. mailetan erabiltzeko. Liburuari buruzko unitate didaktikoa ere prestatu dute UEMAREN hezkuntza arduradunek, eta eskolen eta irakasleen eskura jarri dute. Izan ere, hizkuntza harrotasunaren gaia jorratzen du liburua, eta baita aske eta autonomo izatearen garrantzia ere.

Era berean, haurrekin bioaniztasunaren gaia lantzeko ere balio du liburua, hizkuntza txikiak mundua handitzen eta

edertzen dutela nabarmentzen baitu. Horrela, bioaniztasunaren garrantziaz hitz egiteko eta euskara zaintzeko beharrez hitz egin daiteke eskolan edo etxean, unitate didaktikoan proposatzen diren jarduerak eginez haurrekin.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan gai hau landu nahi duten eskolek, dohainik jasoko dute liburua, UEMAK prestatutako unitate didaktikoarekin batera. Haur Hezkuntzan lantzeko beste lau unitate didaktiko ere eskura dituzte irakasleek. Miren Amurizak haurrentzat idatzitako *Euskara* bildumako lau liburuei dagozkienak, zehazki.



UEMAK eta Pamielak argitaratutako *Mokotxiki* liburua lantzeko unitate didaktikoa prestatu dute irakasleek.



'INTXAURRA' ANTZEZLANA SORTZEKO EGITASMOAK JASO DU EUSKARAREN ARNASGUNEETI BURUZKO ANTZERKI BEKA

UEMAK, EUSKO JAURLARITZAK ETA NAFARROAKO GOBERNUAK ELKARREKIN ABIARAZITAKO ARNAsA GARA KANPAINAREN BAITAN, 'ARNASGUNEAK ANTZERKI SORKUNTZARAKO BEKA' SORTU DUTE AURTEN, ARNASGUNEEN GARRANTZIA JENDARTERATZEKO ANTZEZLAN BAT SORTZEKO HELBURUAREKIN. EPAIMAHAIK ABENDUAREN 3AN JAKINARAZI ZUEN EPAIA, ETA LESAKAKO MAIRU ANTZERKI TAILERRA IZAN DA IRABAZLEA. GUZTIRA 23.000 EURO JASOKO DITUZTE, ETA ANTZEZLANA SORTZEKO AZPEITIKO DINAMOA SORMEN GUNEA ERABILTZEKO AUKERA IZANGO DU TALDEAK. ANTZEZLANA, BERRIZ, 2022KO AZPEITIKO EUSKAL ANTZERKI TOPAKETETAN ESTREINATUKO DUTE.



Antzezlana baten bidez arnasmuneen garrantzia jendarteratzea da beka berriaren helburua.

Udalerrri euskaldunek eta euskararen arnasmuneek euskararen biziberritzeari eta Euskal Herriari egiten dioten ekarpena nabarmen-tzeko eta herritarrak arnasmuneen garrantziaz kontzientziatzeko *Arnasa Gara* kanpainaren baitan, UEMAK, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Arnasmuneak antzerki sorkuntzarako beka sortu dute aurten, Azpeitiko Udalaren eta Dinamo Sormen Gunearen laguntzarekin. Helburua arnasmuneen garrantzia jendarteratzeko berariaz sortutako antzezlana estreinatzea eta herriz herri zabaltzea da. Horretarako, antzezlana sortzeko beka deialdia egitea erabaki dute, eta aurkeztu diren egitasmoak aztertu ondoren, abenduaren 3an jakinarazi zuten epaia. Lesakako Mairu Antzerki Tailerrak jasoko du 23.000 euroko saria, *Intxaurra* antzezlana sortzeko. Manex Fuchs izango da zuzendaria, eta inguratzen gaituen ekosistemak guregan duen eragina islatuko dute, Gaizka Sarasolak idatzitako testuan oinarrituta.

EITB EUSKARA NORMALIZATZEKO SORTU ZELA GOGORATU eta ETBn EUSKARAZ ARITZEKO DEIA EGIN DU UEMAK



UDALERRI EUSKALDUNETAKO ERREALITATE SOZILINGUISTIKOA ERRESPEATZEKO ESKATU DIO BERRIRO ERE UEMAK EITBri. UDALERRI EUSKALDUNETAKO ALKATEEI ETA UDAL ORDEZKARIEI, BERRIZ, ERAKUNDE PUBLIKOEI HERRITARREN AURREAN EREDU IZATEA DAGOKIELA GOGORATU ETA ETBn EUSKARAZ ARITZEKO BEHARRA NABARMENDU DIE, EITB EUSKARA NORMALIZATZEKO SORTU ZELA GOGORARAZIZ.

ETBn euskara hutsean aritzeko konpromisoa publiko egin zuten 100 bat kirolari, idazle, bertsolari, musikari eta kazetarik 2014ko urrian. UEMAK ere bat egin zuen ekimen harekin, udalerrri euskaldunetako errealitatea ez desitxuratzeko eskatuz EITBri. Hurrengo urtean, berriz, adierazpenen hizkuntza tratamendua arautu zuen EITBk, eta elkarrizketatuaren hizkuntza hautua errespetatzea «funtsezko» irizpidea dela adierazi zuen. Urteek aurrera egin ahala, ordea, udalerrri euskaldunetako ordezkariak eta herritarrak etenik gabe erdaraz agerrarazi ditu EITBk. Horren aurrean, beste behin ere EITBn euskaraz aritzeko deia egin die UEMAK udal ordezkariari, erakunde publikoei eredarri izatea dagokiela gogoraraziz. Mezua hauspotzeko, irailean bideoa zabaldu zuen UEMAK sare sozialetan eta mezularitza aplikazioetan, azken urteotan ETBn euskara hutsean aritzeko eredarriak izan diren zenbait alkateren argudioekin. Lierni Altuna, Joxe Manuel Zubillaga, Haritz Alberdi eta Amaia Zabalaren adierazpenak biltzen ditu bideoak, Aramaio, Araitx, Getaria eta Gizaburuagako alkateenak, hurrenez hurren.

labur.eus/ETBnEuskaraz
loturan ikus daiteke bideoa.

MerKatarITZan ere euskara Lehenesteko deia, Horretarako baliabideekin eta behar den laguntzarekin

Urtero bezala, eguberrien eta urtarrileko merkealdien atarian, merkataritzan euskara erabiltzeko deia egin eta horretarako baliabideak eskaini dizkie UEMAK merkatariel. 'Betikoa, gertukoa' kanpainaren nondik norakoak azaldu, doan dituzten zerbitzuak gogoratu eta .EUS domeinuari esker dituzten abantailak ezagutarazi zaizkie.

Udalerrriak euskalduntzeko abian dituen ildoen baitan, merkataritzan, ostalaritzan eta oro har zerbitzu sektorean euskara naturaltasunez erabiltzeko baliabide ugari eskaintzen ditu UEMAK: kartelak, menuak, etiketak, hiztegiak, faktura takoak, TicketBAI euskaraz jartzeko irizpideak eta abar. Horiek guztiak doan eskaintzen dizkie behar dituztenei, denda edo taberna bakoitzaren beharren arabera pertsonalizatzeko aukerarekin.

Eguberrietako eta urtarrileko kanpainen atarian, UEMAK prestatutako triptikoa jasoko dute merkatariak, zerbitzua erabiltzeko gonbidapena eginez eta euskaraz aritzea garrantzitsua zergatik den azalduz: kalitatezko zerbitzua emateko, gure herriko berezko hizkuntza delako, bezero gehienak euskaldunak direlako, kaleko hizkuntza paisaia euskalduntzeko eta euskararen normalizazioan laguntzeko, besteak beste.

Triptikoarekin batera, *Betikoa, gertukoa*. *Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz* kanpainaren berri ere jasoko dute merkatariak. Izan ere, merkataritzan euskara sustatzeko kanpaina abiarazi du Eusko Jaurlaritzak lelo horrekin. Helburua tokiko merkataritzan euskararen erabilera sustatzea eta



Merkataritzan euskara sustatzeko *Betikoa, gertukoa*. *Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz* kanpaina abiarazi du Eusko Jaurlaritzak, eta UEMAK bat egin du kanpainarekin.

merkatari nahiz bezero euskaldunak aktibatzea denez, UEMAK ere bat egin du kanpainarekin, zerbitzu sektorean euskara lehenesteko eta nabarmentzeko dituen ekimenen osagarri delakoan.

.EUS domeinua erabilia, hainbat abantaila

Lan mundua euskalduntzeko ahaleginean, garrantzitsua da sareko erreferentziak eta erakusleihoak ere euskarazkoak izatea, eta

esparru horretan euskararen erreferentziatzeko domeinua da .EUS, bezeroei eta erabiltzaileei adierazten baitie zerbitzua euskaraz eskaintzen dela, etxekoa dela.

Orain, gainera, ohiko abantailaz gain, .EUS domeinua dutenek webgunea bost hizkuntzatan bistartzeko aukera izango dute, Elhuyarren Elia itzultzaile automatikoari esker. Horregatik, merkatariel he-larazitako triptikoan .EUS domeinuaren abantailak ere gogorarazi dizkie UEMAK.

Udalerrri euskaldunen berri, egunero: urte osoan zehar, sarean etenik gabe jaso daiteke UEMAREN informazioa

UEMA.EUS webgunean ez ezik, Twitter, Telegram, Facebook, Instagram eta OHIKO sare bideetan ETENIK GABE ZABALTZEN DU UEMAK informazioa, HIZKUNTZA POLITIKARI ETA UDALERRI EUSKALDUNEI BURUZKO ALBISTEAK NABARMENDUZ.

